

4. GAIA: KAPITAL SOZIALAREN MURRIZTAPENAK

4.1. KAPITAL MURRIZTAPENA EGITEKO ARRAZOIAK

Erreferentzia legala: Kapital Sozietateen Legearen Testu Bategina, VIII. Titulua, III. Kapitulua, I. Atala, 317-319 art.

Sozietateak bere kapitala murrizteko dituen arrazoi ezberdinen artean, hauek egon daitezke:

- Galeren ondorioz galdutako oreka finantzarioa berreskuratzea.
- Erreserba legalaren edo borondatezko erreserben sorrera edo gehikuntza.
- Bazkideek egindako despoltsapenak itzultzea.

Kapital murriztapena, akzioen balio nominala murriztuz edo akzioak amortizatuz egin daiteke (317. art.). Kapital zabalkuntzan gertatzen den bezala, murriztapena Bazkideen Batzar Orokorrak onartu beharko du eta estatutuak aldatu beharko dira.

Bazkideen batzarrak hartzen duen erabakian gutxienez ondorengoak zehaztu beharko dira: murrizketaren zenbatekoa, helburua/zergatia, nola egingo den, epea, eta hala balegokio, bazkideei despoltsatu beharrekoa (318. art.).

Murrizketaren akordioa Merkataritza Erregistroaren Buletin Ofizialean argitaratu behar da eta sozietatearen web orrian ere; azken hau ez izatekotan, helbide soziala daukan helbideko probintzian zirkulazio handiko egunkariren batean (319. art.) egingo da.

Zenbait kasutan, enpresak ez du borondatez hartzen kapital murrizketaren erabakia, baizik eta legez derrigorputa dagoelako. Hau ondorengo egoeretan gertatuko da:

1- Baliabide propio gehiegi izateagatik eta bazkideari ordainketa gisa emateko

2- Metatutako galerei aurre egiteko

Borondatez: Akziodunek emaitza negatiboak eliminatzeko aukera daukate. Hala ere, kapital murriztapenik ezin izango da egin ondorengo baldintzak ematen diren bitartean:

- Erantzukizun mugatuko sozietateen kasuan, edozein motako erreserbak dauden bitartean (322.1 art.)
- Sozietate Anonimoen kasuan, borondatezko erreserbak edo legezko erreserbaren zenbateko erabilgarria (kapital berriaren %10 gainditzen duen zenbatekoa) dauden bitartean (322.2 art.).

Derrigorrean: Sozietate Anonimoen kasuan, galeren ondorioz enpresaren ondare garbia kapital sozialaren bi heren baino txikiago bilakatu denean, eta ondare garbirik ez bada erreuperatu ekitaldi bateko epean, kapital murriztapena derrigorrean egingo da (327. art.).

3- Akzio propioak merkaturatu ezin direnean ondorengo arrazoiengatik

- Akziodun berankorreatatik (“moroso”) (84.2 art.)
- Ados ez dauden bazkideak daudelako helbide aldaketengatik, izaera juridikoaren eraldaketagatik, etab. (84.2. art.).

4.2. KAPITAL MURRIZTAPENA EGITEKO MODU EZBERDINAK ETA TRATAMENDU KONTABLEA. HARTZEKODUNEN KONTRAKOTASUNA

4.2.1. Kapital murriztapena egiteko modu ezberdinak eta tratamendu kontablea

Kapital murriztapena akzioen balio nominala murriztuz egin daiteke. Edonola ere, murriztapena egiteko helburuak asko izan daitezke eta bakoitzak bere tratamendu kontablea izango du.

- Despoltsapenak itzultzeko
 1. Despoltsapenen itzulpena
 2. Dibidendu pasiboak barkatzea
- Erreserbak eratzeko edo gehitzeko
 3. Erreserba Legala
 4. Borondatezko erreserba
- Galerak konpentsatzeko edo enpresaren ondare-egoera saneatzeko
 5. Borondatez
 6. Derrigorrean

1.- Bazkideen despoltsapenak itzultzeko (329-330 art.)

Kapital murriztapena balio nominala murriztuz egiten da eta ondorioz, enpresaren diruzaintza irteera edo bestelako aktiboen irteera suertatuko da:

Zenbatekoa	Zor	Data	Hartzeko	Zenbatekoa
	(100) Kapital Soziala		(57) Diruzaintza Beste zenbait aktibo	

2.- Ordaintzeko dauden dibidendu pasiboak barkatzea (kasu berezia)

Kasu honetan, kapital murriztapenaren bidez, bazkideek oraindik egin gabeko despoltsapenen ondorioz enpresarekin dituzten zorrak (osorik ala zati batean) barkatu egiten dira:

Zenbatekoa	Zor	Data	Hartzeko	Zenbatekoa
	(100) Kapital Soziala		(103) Bazk, galdatu gabeko despoltsapenengatik (104) Bazkideak, oraindik egin gabeko diru ez diren ekarpenengatik (558) Bazkideak, galdatutako ordainketak	

Adibidea:

POZ-POZIK S.A. sozietateak 10.000.000€ko kapital soziala dauka. %20an murriztea

erabakitzen dute, zirkulazioan dauden akzioen balio nominala gutxituz, horrela bazkideek egin gabeko despoltsapenengatik dituzten zorrak kitatu egiten direlarik.

3.- Erreserba Legala sortzeko edo gehitzeko (328. art.)

Kapital Sozialaren zati bat "(112) Erreserba Legala" kontura aldatzean datza. Hala ere, helburu hau duen murriztapena egiteko, lehenengo, ekitaldiko mozkinak eta erreserba libreak erabili behar dira, eta ondoren, "(112) Erreserba Legala" kontuan geratzen den zenbatekoa ezin da geratzen den kapital berriaren %10 baino handiagoa izan (325. art.)

Helburu hau duen murrizketaren ondoren dibidenduak banatu ahal izateko, beharrezkoa da "(112) Erreserba Legala" kontuan geratzen den zenbatekoa gutxienez kapital berriaren %10 izatea (326. art.).

Zenbatekoa	Zor	Data	Hartzeko	Zenbatekoa
	(129) Ekitaldiko Eraitza (100) Kapital Soziala		(112) Erreserba Legala	

Adibidea:

LILURA, S.A. sozietateak 10.600.000€ko kapital soziala dauka. Ez dauka eraitza positiborik eta daukan erreserba bakarra Legezko Erreserba da 400.000€ko zenbatekoarekin. Zenbatean murriztu ahal izango du kapitala gehienez?

4.- Borondatezko Erreserba sortzeko edo gehitzeko.

Kapital Sozialaren zati bat "(113) Borondatezko Erreserba" kontura aldatzean oinarritzen da.

Zenbatekoa	Zor	Data	Hartzeko	Zenbatekoa
	(100) Kapital Soziala		(113) Borondatezko Erreserba	

5.- Galeren ondorioz galdutako oreka finantzarioa berreskuratzeko (320-324 art.)

Murrizketa honen helburua enpresaren metatutako galerak estaltzea da. Ikusi dugun bezala, eragiketa hau batzuetan borondatez egiten da baina beste batzuetan, legez derrigorluta, ondarearen desoreka larri baten aurrean egoteagatik. Enpresa egoera orekatuan dagoen edo ez, eta kapital murriztapena derrigorrean egin behar duen edo ez aztertzeke, ondorengo analisisia egin behar da:

Ondare Garbia* < 2/3 KS	Sozietate Anonimoak urte beteko epea dauka egoera konpontzeko (KS zabalduz edo murriztuz). Urtea igaro ondoren egoera ez bada konpondu derrigorrean murriztu beharko da kapitala (327. art.).
Ondare Garbia * < 1/2 KS	Kapital Sozietateek berehala konpondu beharko dute hain egoera txarra (KS zabalduz edo murriztuz), bestela, enpresaren disoluzioa egin beharko da (363. art.).
ONDARE GARBIAREN kalkulua (327 eta 363 art. Ondorioetarako):	

Ondare Garbia* egoera finantzario orekatuaren analisirako ondoren adierazten den bezala kalkulatu da:

Ondare Garbia *=

- Ondare Garbia (Balantzekoa)
- + KS Harpidetua baina galdatu gabea
- + Pasibo bezala jotzen den KS eta Prima
- + Partaidetza Zorrak

Adibidea:

AMETSETAN, S.A. sozietateak 200.000.000€ko kapital soziala dauka. Azaldu zein egoeratan egin behar duen kapital murriztapena eta zein den horretarako daukan epea:

- a) Ondare Garbia* = 180.000.000€
- b) Ondare Garbia* = 120.000.000€
- c) Ondare Garbia* = 80.000.000€

Galeren saneamendua egiteko, kapitala murriztu baino lehen, ekitaldiko mozkinak eta erreserba libreak erabili behar dira (erreserba legala barne, %10ren muga kontuan hartuz). Legez mugatuta dago erreserba legala kapital berriaren %10 baino handiagoa ez izatea (325. art.)

Helburu hau duen murrizketaren ondoren dibidenduak banatu ahal izateko, beharrezkoa da“(112) Erreserba Legala” kontuan geratzen den zenbatekoa gutxienez kapital berriaren %10 izatea (326. art.).

Zenbatekoa	Zor	Data	Hartzeko	Zenbatekoa
	(129) Ekitaldiko emaitza (11) Erreserba Libreak (100) Kapital Soziala		(121) Aurreko Ekitaldietako Emaitza Negatiboak	

Adibidea:

MAGIA, S.A. sozietateak ondorengo saldoak aurkezten ditu:

(100) Kapital Soziala	10.000.000
(112) Erreserba Legala	1.200.000
(113) Borondatezko erreserbak	1.000.000
(121) Aurreko Ekitaldietako Emaitza Negatiboak	(3.400.000)

Aukerak:

- a) Enpresak, aurreko ekitaldietako emaitza negatibo guztiak saneatu nahi ditu erreserben %100 erabiliz.
- b) Enpresak, aurreko ekitaldietako emaitza negatibo guztiak saneatu nahi ditu erreserba legala legeak adierazitako muga mantenduz.

Enpresak ekitaldian 200.000€ko emaitza lortuko balu, dibidenduak banatu ahal zango lituzke?

4.2.2. Hartzekodunen kontrakotasun eskubidea

Erreferentzia Legala: Kapital Sozietateen Legaren Testu Bategina, VIII. Titulua, V. Atala, I. eta II. Azpiatalatak

Kapitala murrizteko dauden aukeren artean, zenbait kasutan enpresaren aktiboak murriztu egiten dira eta ondorioz, hartzekodunek zeukaten bermea (sozietatearen balioa) murriztu egiten da. Hau gerta daitekeenean, hartzekodunek kapital murrizketarekiko kontraktasuna adieraz dezakete. Kontraktasun eskubidea, sozietateak zorrak ordaintzen dituzenean edota zorrak bermatzeko erreserbak sortzen dituzenean, desagertu egiten da.

Era honetan, erantzukizun mugatuko sozietateen kasuan, hartzekodun arruntek kapital murrizketarekiko kontraktasuna adieraz dezakete, sozietateak euren kredituak (enpresarentzat zorrak) ordaintzen edo bermatzen ez dituen bitartean (333.3 art.). Sozietate Anonimoen kasuan, aldiz, hartzekodunen kredituen sorrera data kapital murriztapenaren erabakia hartu baino lehenagokoa izan behar da, eta epemuga ere oraindik bukatu gabe eduki behar dute, murrizketarekiko kontraktasuna adierazi ahal izateko (334. art.).

Hartzekodunek, kontraktasun eskubidea murrizketaren erabakia hartu zenetik hilabete bateko epean gauzatu ahal izango dute Sozietate Anonimoen kasuan (337. art.) eta hori ekiditeko, sozietateak "Kapital Amortizatuaren ondoriozko Erreserba" sor dezake. Erreserba kontu honetan adierazi beharreko zenbateko minimoa, mozkinen edo erreserben kontura egingo den kapital murrizketaren zenbatekoa izango da (335.c. art.). Erreserba hau erabiltzeko mugak egongo dira, hirugarrenek dauzkaten kredituen bermea baita.

Zenbatekoa	Zor	Data	Hartzeko	Zenbatekoa
	(129) Ekitaldiko Emaizta (11) Erreserba Libreak		(114) Kapital Amortizatuaren ondoriozko Erreserba	

Sozietate Anonimoen hartzekodunek ez daukate kapital murriztapenarekiko kontraktasun eskubiderik ondorengo kasuetan (335. art.):

- Kapital murriztapenaren helburu bakarra kapitalaren eta ondare garbiaren oreka berreskuratzea denean eta ondare garbiaren murriztapenak galeren ondorioz gertatu izan badira.
- Kapital murriztapenaren helburua Erreserba Legala sortzea edo gehitzea denean.
- Kapital murriztapena mozkinen edo erreserba librean kontura egiten denean, edota ordainketarik gabe eskuratutako akzio propioak amortizatuz egiten bada. Azken kasu honetan, amortizatutako akzioen balio nominalari edo kapital murriztapenaren balio nominalari dagokion zenbatekoa erreserba kontu batera eraman behar da, eta erreserba kontu honen erabilera mugatua dago; bakarrik erabili ahal izango da kapital murriztapenatarako legeak eskatzen dituen baldintzak betetzen badira (jadanik komentatutakoa).

Akzio erreskatagarrien kasuan, hartzekodunen kontraktasun eskubidea ekiditu ahal izateko, akzioen amortizazioa amortizatutako kapitalaren kontura egin daiteke; edo aldi berean/jarraian eragiketa finantzatzeko akzio berriak jaulkiz.

Kontraktasun eskubidearen laburpena:

Kapitala murrizteko helburuak	HARTZEKODUNEN Kontrakotasun eskubidea
Bazkideei despoltsapenak itzultzeko	Bai
Oraindik egiteko dauden dibidendu pasiboak barkatzeko	Bai
Erreserba Legala sortzeko edo gehitzeko	Ez
Borondatezko erreserba sortzeko edo gehitzeko	Bai
Galerak saneatzeko	Ez

4.3. AKORDEOI ERAGIKETAK

Erreferentzia Legala: Kapital Sozietateen Legearen Testu Bategina, VII. Titulua, IV. Kapitulua, 343-345 art.

Une berean sozietateak ∇ KS eta Δ KS erabakitzen duenean.

Batzuetan, sozietateek kapital sozialaren murrizketa onartzen dutenean, kapital sozialaren zenbatekoa legeak eskatzen duen minimoa baino txikiago geratzen da, eta ondorioz, jarraian kapital zabalkuntza bat egiten dute egoera hori konpontzeko, bestela enpresaren izaera aldatu beharko lukete. Adibideak:

- Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak (hala balegokio, ekitaldikoak ere bai) saneatzeko kapitala murrizten bada eta berau 60.000€ baino zenbateko txikiagoan geratzen bada, jarraian kapital zabalkuntza bat onartu behar da, gutxienez legeak eskatzen duen minimoa errespetatzeko. Bestela, sozietate anonimo izatetik, adibidez, erantzukizun mugatuko sozietate izatera aldatu beharko litzateke.
- Despoltsapen berriak lortzeko asmoz egin nahi diren kapital zabalkuntzak oztopatzen dituzten oraindik egin gabeko despoltsapenak galdatzeko.

4.4. AUTOKARTERA (AKZIO PROPIOAK)

Erreferentzia Legala: Kapital Sozietateen Legearen Testu Bategina, IV. Titulua, VI. Kapitulua, 134-158 art.

Autokartera edo akzio propioak, sozietateak bere titulu propioak eskuratzen dituenean sortzen da.

4.4.1. Akzio propioen zergatia

Akzio propioei buruz hitz egiten dugunean, sozietateak akziodun zaharrei bere tituluak eskuratu dizkiela ulertu behar da. Gogoratu, sozietateen eraketan zein kapital zabalkuntzan, enpresak ezin dituela bere akzioak harpidetu. Era honetan, sozietateak igorritako tituluak, sozietatearen jabetzakoak direla agertzen da Balantzean.

Sozietateak (Bazkideen Batzar Orokorra onartuta) bere tituluak eskuratzeko hainbat arrazoi daude:

- Enpresaren akzioen merkatu balioa etengabe murrizten ari denean, bere tituluak eskuratzen baditu, balioa mantentzen lagun dezake.
- Sozietatearen emaitza onak direla eta, zuzendaritzako kideei eta langileei ordainsari gisa emateko.

- Beste arrazoi batzuk: herentziak, dohaintzak, epaile batek hartzekodunek zorrak ordaintzeko aukera hau erabaki duelako (akzioak ematea sozietateari), etab.
- Kapital murriztapena egiteko.

4.4.2. Akzio propioen Arauketa

4.4.2.1 Tituluen jatorrizko harpidetza

Sozietatea eratzean edo kapital zabalkuntzan sortutako titulu berriak, sozietateak berak ezin ditu harpidetu (134.art.). Debekatuta dago, hori gertatzekotan ez litzatekeelako despoltsapenik lortuko (eraketarekin eta gehienetan kapital zabalkuntzarekin lortu nahi dena, hain zuzen ere).

Debekatuta egon arren sozietateak bere akzioak harpidetuko balitu, eskuratze datatik urte bateko epean akzioak inorenganatu behar dira. Horrela egin ezean, administratzaileek Bazkideen Batzar Orokorraren deialdia egin beharko dute akzio hauen amortizazioa gauzatzeko (kapitala murriztuz). Bi hilabeteko epean akzioak ez balira amortizatuko, interesa duen edonork, kapital murrizketa eska dezake enpresaren helbide sozialari dagokion Merkataritza Epaitegian.

4.4.2.2 Titulu propioen eskuratzea

Badaude zenbait egoera, legez onartuak, sozietateak bere tituluak eskuratzeko:

- EMSen kasuan, bere partaidetzak zein sozietate menperatzailearen partaidetzak eskura ditzake, baina legeak adierazitako mugekin (140-141. art.)
- Sozietate Anonimoen kasuan, zirkulazioan dauden akzio propioak ondorengo baldintzak betetzen direnean eskura daitezke (146. art.):
 - Bazkideen Batzar Orokorraren baimena behar da.
 - Akzio propioen eskuratzearen ondorioz, Ondare Garbia** ezin da kapitala+Erreserba legala+Estatutu erreserbak (erabilpen mugatua daukaten erreserbak) baino txikiagoa izan.
 - Ondare Garbia**=
 - Ondare Garbia Balantzearen arabera
 - Zuzenean egotzitako mozkinak
 - +Galdatu gabeko kapitala
 - +pasiboan onartutako kapitala eta prima
 - Autokarteraren balio nominala ezin da izan kapital sozialaren %20 baino handiagoa (sozietateak kotizatzen badu, %10).
 - Eskuratutako akzio propioek guztiz despoltsatuta egon behar dute. Salbuespena: eskuratzea ordainketarik gabe denean.

Baldintza hauek ez balira beteko, akzio propioak eskuratu direnetik urte bateko epean saldu behar dira. Bestela, akzioak amortizatu eta kapitala murriztu egin beharko da.

Ondorengo kasuetan, aipatutako baldintzak ez betetzea onartzen da (144. art.), hau da, akzio propioak inolako baldintzarik gabe eskura daitezke:

- Bazkideen Batzar Orokorrak onartutako kapital murriztapena egiteko eskuratzen direnean.
- Osotasunean onartutako ondare garbi baten barne daudenean.
- Guztiz liberatuta daudenean eta dohain eskuratzen badira.
- Akzioak, guztiz liberatuta egonik, sozietatearen aldeko eskubideak ordaintzeko erabiltzen direnean (epaiketa baten erabakiaren ondorioz).

4.4.3. Akzio propioen ondorioak

Sozietateak bere akzioak eskuratzen baditu, akzio horiei dagokionez ondorengo ezaugarriak galtzen/mantentzen dituzte (148. art.):

- Ez daukate boto eskubiderik, ezta gainontzeko eskubide politikorik ere.
- Ez dira galtzen eskubide ekonomikoak, bai, aldiz, akzio berrien esleitzea.
- Kontuan hartuko dira Bazkideen Batzar Orokorreko akordioak hartzeko kuotak kalkulatzeko.

4.4.4. Balioespena

Hasierako balioespena: eskuratze kostua. Burtsan eskuratzen badira, kotizazio balioa, eta zuzenean akziodunari eskuratzen bazaizkio, alderdi bien artean adostutako prezioa.

Eskuraketan izandako gastuak (banku komisioa, korretaria, etab.) ondare garbiko erreserben kontura kontabilizatuko dira (erreserbak murriztuz).

4.4.5. Tratamendu kontablea

- Akzio propioak eskuratzearen helburua jarrian akzioak amortizatzea baldin bada (kapitala murriztuz):

Zenbatekoa	Zor	Data	Hartzeko	Zenbatekoa
	(109) Kapitala murrizteko akzioak (11) Erreserbak		(57) Diruzaintza	

“(109) Kapitala murrizteko akzioak “kontua, Fondo Propioen barne ikur negatiboarekin agertuko da.

Akzioak amortizatzean eta kapitala murriztean, eskuratze prezioaren eta balio nominalaren arteko diferentzia erreserbetan islatuko da (positiboa zein negatiboa):

Zenbatekoa	Zor	Data	Hartzeko	Zenbatekoa
	(100) Kapital Soziala (BN*akzio kopurua) (11) Erreserbak (KH>BN denean)		(109) Kapitala murrizteko akzioak (KH*akzio kopurua) (11) Erreserbak (KH<BN denean)	

Adibidea:

LAGUNTZAILE, S.A. sozietateak bere sozietatearen 200.000 akzio eskuratzen ditu. BN= 20€ eta eskuratze kostua 2.400.000€. **Kontabilizatu eskuratzea.**

- Gainontzeko kasu guztietan, akzio propioak “(108) Egoera Bereziatako Akzio Propioak” kontuan kontabilizatuko dira, fondo propioen barne ikur negatiboarekin.

Zenbatekoa	Zor	Data	Hartzeko	Zenbatekoa
	(108) Egoera Bereziatako Akzio Propioak (11) Erreserbak		(57) Diruzaintza	

- 1) Akzio propioak saltzen direnean, ezin da inolako emaitzik kontabilizatu (ez irabazirik ez galerarik), eta eskuratze prezioaren (kostu historikoa) eta balio nominalaren arteko diferentziak erreserbetan islatuko dira:

Zenbatekoa	Zor	Data	Hartzeko	Zenbatekoa
	(57) Diruzaintza (Salm Pr*tit kopurua) (11) Erreserbak (KH>BN denean)		(108) Egoera Bereziatako Akzio Propioak (KH*tit kopurua) (11) Erreserbak (KH<BN denean)	

- 2) Akzio propioak amortizatzen badira, kapitala murriztu egingo da:

Zenbatekoa	Zor	Data	Hartzeko	Zenbatekoa
	(100) Kapital Soziala (BN* tit kopurua) (11) Erreserbak (KH>Salm Pr denean)		(108) Egoera Bereziatako Akzio Propioak (KH*tit kopurua) (11) Erreserbak (KH<Salm Pr denean)	

Adibidea:

PARRANDA, S.A. sozietateak 200.000 akzio propio eskuratzen ditu. BN= 10€ eta eskuratze kostua 2.400.000€. Hilabete batzuk beranduago, akzioen erdia 1.500.00€tan saltzen du, salmenta gastuak 20.000€ izanik. Gainontzeko akzioak kapitala murriztuz amortizatu egiten dira. **Kontabilizatu eragiketak.**